

musika u ANJE DUHALDE

Brassensen espiritua Luna Negran

n

Taldea: Anje Duhalde (ahotsa eta gitarra), Remi Gachis (gitarra) eta Mathias Lopez (kontrabaxua). **Lekua:** Baionako Luna Negra. **Eguna:** otsailaren 17a.

BARNEA hertsia zen, jendea tinko-tinko elkarren kontra jarririk, eta argi gorrail batek agerian ematen zuen oholtza. Luna Negra kafe-antzokiko gela tipia bete-betea izan zen Anje Duhaldek arratsalde berean egin zituen bi emanaldietan. Usaia duen bezala, bere nortasuna atxikiz, esperientzia berri horri buruzko azalpenak egin zizkien etorri ziren ikus-entzuleei. Anitzek erran bazioten ere Brassens frantses kantari famatuaren itzultzea ezin zela, Anjek bere buruari «pario bat» bezala egin zuela adierazi zuen herenegun arratsean. Entseatu dela eta «izerdi eta zainaldi anitz» bizi izan dituela ere Georges Brassensen obra altxorrari lotzean esplikatu zuen kantari lapurtarrak.

Omenaldia egin nahian eta gaualdi bereziak sortzen zion tentsioa sentitzen zela, Anjek adierazi zuen Brassens harendako dela «iragan mendeko koblaririk handiena». Bertsolaritzarekin ere oso lotua zela erran zuen; Brassens bertsolaria izan balitz handienetariko bat izanen zela ohartarazi zuen. Omenaldi hunkigarri horren ondotik, denei esku zarta beroak eginarazi zien Brassensen omenez. *Ur gardeneko ithurria* kantua aipatzean, Brassensek amodio abestien egiteko zuen indarra agerian eman zuen. «Gauza sinpleak idazten zituen, baina horiek dira zailenak idazteko». Une berezia izan zen kantu batentzat publikoari kantarazi ziolarik Anje Duhaldek, eta berezikiago emazteei. «Brassensek denek isilean pentsatzen dutena goraki erraten zuen», erran zuen kantua aurkeztean. «Hamarretarik zortzitan emaztea aspertzen da txortan», dio kantuak garbi eta gordin.

«Euskarak edozein hizkuntzak bezainbat balio du», erran zuen kantaldi hastapenean Duhaldek, eta euskarako itzulpenak ezagutzen ez genituenek ez genuen dudarik kontzertua bururatzean. Izan ditezen Anjeren itzulpenak, Xabier Leterenak, Sarasuarenak, Txomin Artolarenak, denek pasarazi digute, dudarik gabe, Brassensen espiritua. Eta konparaketarik ez da egiterik, ez hitzetan ez interpretazioan, Brassensek zuelakoan bere berezitasuna eta Anjek berea duelako, baina beti hor da zirika, beti hor da biper bixia. Goresmen beroenak ere izan dira, Anjerekin ari izan diren bi gazteentzat, Mathias Lopez kontrabaxuan baitzen eta Remi Gachis gitarran. Zinez erran daiteke Brassensen musikaren fineziak eskaini dizkigutela.

Zenbait asteren buruan aterako den diskoan izan dugu parada emanaldi horren entzuteko.

Iñaki Etxeleku

